



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

NAZIOARTEKO
BIKAIN TASUN
CAMPUSA
CAMPUS DE
EXCELENCIA
INTERNACIONAL

DEIALDI GUZTIETARAKO ARAUAK

(INFORMAZIO GEHIGARRIA I, II, III eta IV. ERANSKINETARAKO)

IVAPekoen Eskola antolaketa eta baldintzak

IKASTAROEN EGUTEGIA ETA ORDUTEGIA

Administrazioko taldeak	Bestelako taldeak (matrikula orri pertsonalizatuarekin)
5 orduko ikastaroak urriak 2 - otsailak 9 Bilbo, Donostia eta Gasteiz: 08:00-14:00 Goizez bakarrik. 2 orduko ikastaroak urriak 2-maiatzak 25 Bilbo, Donostia eta Gasteiz: 08:00-10:00 2 orduko ikastaroak 4Herako urriak 2-maiatzak 25 Bilbo, Donostia eta Gasteiz: 08:00-10:00 Astelehen, asteazken eta ostiraletan.	Euskaltegietak beste taldeetan eskolatzen diren ikasleek, administrazioko taldeak ez direnak, tokian tokiko euskaltegiaren ordutegia eta egutegia izango dute, eta matrikula orriarekin arituko dira. Barnetegiko ikastaroak Zornotzako Barnetegian eta Lazkaoko Maizpide Euskaltegian egin beharko dira. Egutegiak eta ordutegiak euskaltegi hauen eskaintzaren araberrakoa izango dira. Eta ikasle hauek ere matrikula orriarekin eskolatuko dira. Lanorduz kanpoko ikastaroak. Ikastaro presentzialak edo autoikaskuntzakoak direnean, matrikula orriarekin arituko dira eta ikasleek kasuan kasuko euskaltegiaren egutegia izango dute.

ORDU KREDITUA

Lanorduetako eta lanorduz kanpoko ikastaroei dagokienez, ordu-kredituak ezartzen dituen Aginduari jarraituko zaio (Agindua, 2005eko azaroaren 30ekoa, Ogasun eta Herri Administrazio sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko herri-erakundeetako langileen euskalduntzean aplikatuko diren ordu-kredituak ezartzen dituen. EHAA: 2005-12-19; 239. zenb.).

Ondorioz, euskara ikastaroa hasteko, beharrezkoa izango da ordu-kredituaren saldoa **aldekoa** izatea. Ordu-kreditua ikastaroa aurrera doala agortzen bada, langileak ikastaroa bukatu arte jarraitu ahal izango du.

Ordu-kreditua agortu ondoren, dagokion hizkuntza-eskakizuna gainditu ez duen langileari ez zaio onartuko euskara ikasteko eskabide gehiago, gainditu beharreko hizkuntza-eskakizuna lortu arte.

Ordu-kredituaren sistema ziurtatzeko, maiatza/ekaineko azterketen emaitzak argitaratzen direnean, IVAPek ordu-kredituaren kontrola egingo du eta saldo negatiboan jarraitzen duten eskaera guztiak bertan behera utziko ditu.



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

NAZIOARTEKO
BIKAIN TASUN
CAMPUSA
CAMPUS DE
EXCELENCIA
INTERNACIONAL

LANORDUETAKO IKASTALDEETARAKO MAILAKETA PROBAK

Lanorduetako taldeak antolatzeko, IVAPeK ezinbestekoa du eskatzaileen euskara-maila jakitea. Horretarako, IVAPeK **mailaketa proba**ra deituko du. Dena dela, eskatzailea IVAPeKin eskolatu bada azken ikasturtean, azken ebaluazioa erabiliko du hurrengo kurtsoko hasiera-maila ezartzeko. Bestalde, administrazioko ikastaldeetara ez doazen eskatzaileak ez ditu deituko.

Eskatzailea mailaketa proba **aurkeztu ez bada, IVAPeK bazter utziko du haren eskaera**. Hala ere, aparteko aukera bat izan dezake, aurkeztu ez izana egoki eta garaiz arrazoitzen badu. Horretarako, haren erakundeak (UPV/EHUK) idazki bat bidali behar du IVAPer, beranduen ere, **proba egunetik 2 egun balioduneko epean**. Aparteko dei honetara ere aurkeztu ez bada, bertan behera utziko du IVAPeK haren eskaera.

Mailaketa probak 2017ko ekainaren bigarren hamabostaldian egingo direla aurreikusten du IVAPeK.

ADMINISTRAZIOKO TALDEAK ANTOLATZEA

Mailaketa probak egin ostean, administrazioko langileez osaturiko taldeak antolatuko ditu IVAPeK hiriburuetan. Administrazioko taldeen egutegia eskatu arren talderik osatu ezin denean, IVAPeKo matrikula-orria emango die ikasleei, nahi duten euskaltegi homologatuan matrikulatzeko, betiere eskatu eta baimendutako moduluan.

MATRIKULA ORRIEI BURUZKO OHARRAK

Matrikula orria **agiri ofiziala** eta pertsonala da; bertan ikaslearen izen-abizenak daude jasota eta ezin du beste inork erabili.

Matrikula orriaren bitartez eskatzaileak berak aukeratutako euskaltegi publikoan edo pribatu homologatuan egin dezake matrikula. Ikastaroak, betiere:

- **HABEk homologatuak** izan behar dira.
- **Iraupena**: Urritik, maiatza-ekainera bitartekoak izan behar dira. Barnetegiko ikastaroek eta egunean 5 orduko ikastaroek lauhileko iraupena izan behar dute.
- **Autoikaskuntzako ikastaroak**: lanorduz kanpo egin beharko dira, eta gutxienez 190 orduko iraupena izan behar dute. IVAPeK matrikula orri bakarra eta berezitua emango die ikasleei, euskaltegi publiko edo pribatu homologatu batean, edo autoikaskuntzako zentro homologatu batean matrikulatzeko. Autoikaskuntzako ikastaroetan izena emateko ezin izango da erabili IVAPeK ikastaro presentzialetarako ematen duen ohiko matrikula orria.

Ezinbestekoa izango da matrikula orria, IVAPeKo zigilu originalarekin euskaltegian aurkeztuta izatea ikastaroa hasten denerako. Arau orokor moduan, matrikula orria euskaltegian entregatu duen langileari ikastaroaren lehen egunetik zenbatuko zaio asistentzia, nahiz eta ikaslea beranduago hasi eskolan.

Langilea inon matrikulatzen ez bada, ahalik eta lasterren itzuli behar du aipatutako matrikula orria Euskara eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko errektoreordetzara (**urriaren 19a baino lehen**), unibertsitateak IVAPer bueltatzeko. Matrikula orria itzultzea ezinezkoa gertatuz gero apurtu edo galdu delako, Euskara eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko errektoreordetzara jakinarazi beharko du inon ez dela matrikulatu, IVAPer jakinarazteko.

Kontuan izan behar da langileak bere matrikula orria euskaltegian entregatzen duen unean gauzatzen duela ikastaroaren matrikula. Une horretatik aurrera langilea

matrikulatuta dago euskaltegian eta IVAPeK ordaindu egin behar du langilearen matrikulari dagokion kostea.

Diru-baliabideen erabilera zentzuzkoa eta arrazoizkoa ziurtatu ahal izateko, langileek aprobetxamendu egokia lortu beharko dute ikasturtearen buruan.

ESKOLETAN HASTEAK

Ikastaroa hasten den egunean bertan hasi beharko du langileak eskoletara. Didaktika eta antolakuntza arrazoiak direla medio **IVAPek ez du onartuko urriaren 22a baino beranduago hasterik eskoletan.**

Beraz, IVAPeK bertan behera utziko ditu egun horretan eskoletan hasita ez dauden langileen eskaerak eta, ondorioz, ez du bere gain hartuko euren matrikula orrien kostua.

Eskola-hutsegiteak **ikastaroaren lehen egunetik** zenbatuko dira, nahiz eta ikaslea beranduago hasi ikastaroan.

IVAPek arrazoi hauengatik onartuko du eskolan berandu hastea: gaixotasunagatik. Erditzeagatik, adopzio edo harreragatik eta aitatasunagatik. Nolanahi ere, beranduko eskolatzea bideratzeko, baldintza hauek bete beharko dira:

- IVAPek aldeztu aurretik jakin behar du langilea ez dela garaiz hasiko. Horretarako langileak Euskara eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko errektoreordetzara jakinarazi beharko du denboraz.
- Langilea hasteko prest dagoenean idatziz jakinarazi behar du erakundeak IVAPera.
- Galdutako eskola-orduen muga igaro gabe egotea. Alegia, eskola ordu kopuruaren %20a igaro aurretik hasi beharko du.

ESKOLARA JOATEARI UZTEA

Eskolan hasi ondoren ikasleak ikastaroa behin betiko uztea erabakitzen badu, horren berri eman behar dio ikasleak IVAPi eskola uztea gertatzen den une berean.

Horretarako **"Jakinarazpena: euskarako eskolara joateari uztea"** izeneko inprimakia bete eta IVAPera bidali behar du ikasleak.

Inprimakia www.ivap.euskadi.net orrian eskura daiteke: (euskara>euskara ikastaroak>zer egin ikastaroa behin betiko uzteko?>eskola uztea jakinarazteko inprimakia).

Eskola-uztearen data inprimakia erregistratzen den egunekoa izango da. IVAPen zein beste erakunde batean erregistra datieke. Beraz, oso garrantzitsua izango da inprimakia lehenbailehen bidaltzea IVAPera.

Azkenik, IVAPen zeregina izango da ikaslearen erakundeari eskola-uztearen berri ematea.

IKASLEEI BURUZKO INFORMAZIOA ETA DATUEN BABESA

Euskara ikastaroa kudeatu ahal izateko ezinbestekoa da ikasleei buruzko hainbat datu pertsonal jasotzea, tratatzea, fitxategi batean biltzea eta dagokion sailari lagatzea. Horrela, IVAPeK lanorduetan nahiz lanorduz kanpo ari diren ikasleen asistentzia eta ebaluazio datuak jasoko ditu, eta erakunde bakoitzari bere ikasleei dagozkienak jakinaraziko dizkio.

Lankidetzaz Hitzarmenaren ondorioz jasoko diren datu pertsonalen tratamendua, bai Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak, bai datu pertsonalak gordetzen dituzten fitxategi automatizatuen segurtasun-neurrien Araudiak (ekainaren 11ko 994/1999 Errege-dekretuaren bidez onartutakoa) xedatutakoaren arabera egingo da.

Lankidetzaz Hitzarmenera biltzen diren langileek onartu egiten dute bertan ezarritako helburuak betetzeko jasoko diren datu pertsonalen tratamendua. Horrela, onartu egiten dute IVAPe datuak jasotzea eta dagozkien erakundeei jakinaraztea bai euren asistentziari eta ebaluazioari dagokienez, eta baita euren aprobetxamenduari buruzko txostenei dagokienez ere. Onartu egiten dute baita ere, datu-lagapenak egitea Kultura Saileko Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari, normalkuntza planaren betetze maila ebaluatzeko txostenak egin ditzan, (Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren 6. art.). Onartu egiten dute azkenik, datu-lagapenak egitea Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzeko Erakundeari -HABEri-, (Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren seigarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera).

Ikasleei buruzko datu-pertsonalak Datuak Babesteko Agentzian erregistratutako "Funtzionarioak euskalduntzea" izeneko fitxategian egongo da. Ikasleek Fitxategiko datuetara sartzeko, datuok aldatu eta deuseztatzeko eskubidea erabili nahi izanez gero, IVAPe Idazkaritza Nagusira jo dezakete: Donostia-San Sebastian kalea, 1; 01010 Vitoria-Gasteiz.